




POLITIKAK

MATZ-ERREKA S.COOP



ERREKA GROUP

B. Ibarreta SN, 20577,
Antzuola – Gipuzkoa, Spain.

T. +34 943 78 60 09

info@erreka.com

www.erreka.com



Sarrera

Dokumentu hau gure erakundean indarrean dauden politika guztien bilduma integrala da. Enpresaren jardun-eremu guztietan enpresaren funtzionamendua arautzen duten jarraibideak ezarriko dituen eta gure funtzioen garapenean gardentasuna, efizientzia eta erantzukizuna sustatuko dituen erreferentziazko dokumentu bakar eta eskuragarri gisa balio izatea du helburu.

Hemen jasotako politika bakoitza gure jardueren kudeaketa operatiborako, estrategikorako eta etikorako esparru argi eta koherentea ezartzeko helburuarekin diseinatu da. Esparru horrek aukera ematen du erakundearen jokabidea gure balioekin lerrokatzeko, araudia betetzen dela bermatzeko eta maila guztietan erabakiak hartzea errazteko.

Honela egituratzen da definitutako politika bakoitza:

- Helburua eta aplikazio-eremua
- Oinarrizko printzipioak
- Konpromisoak

POLITIKA KORPORATIBOA da MATZ-ERREKA S. COOPen aplikatu beharreko politiken zerrenda eta politika horiek onartzeko eta horien jarraipena egiteko jarraitu beharreko gobernantza-eredua jasotzen dituen dokumentua, bai eta erakundea kudeatzeko gardentasun-konpromisoa ere. Hau argitaratu eta alderdi interesatuen esku jarri behar da.

Politika korporatiboen inplementazio eraginkorra eta koherentea bermatzeko, kasu askotan, **printzipio orokorrak ekintza zehatz bihurtzea** helburu duten **eskuliburu operatiboekin** osatu beharko dira. Eskuliburu horiek erakundearen egunerokotasunera egokituko dira, eta dagokion politikan ezarritakoa betetzeko jarraitu beharreko urratsak, erantzukizunak, tresnak eta/edo irizpideak zehaztuko dituzte.

MATZ-ERREKA S. COOP.EN POLITIKA KORPORATIBOA

1. Helburua

MATZ-ERREKA S. Coop mundu mailako negozio eta filial multzo batek osatzen du. Nazioarte mailan lehiakorra da hainbat sektoretan, eta bere jarduera oinarritzen da zehaztutako estrategiak aurrera eramateko sortu dituen politika eta konpromiso desberdinak betetzean eta errespetatzean.

Aldi estrategiko bakoitzean, hautemandako arrisku eta aukeretatik abiatuta, jarraitu beharreko estrategiak ezartzen dira, politikak berrikusten dira eta helburu eta adierazle batzuk ezartzen dira.

EESS eta RICekin batera, politika desberdinek kooperatiba bere enpresa-jardueran gidatuko duen esparrua osatuko duten oinarritzko printzipioak eta hartutako konpromisoak ezartzen dituzte.

2. Oinarritzko printzipioak

- Politika hauek enpresa-kudeaketaren eremu guztietara hedatzen dira, eta Matz-Erreka S. Coop-eko jarduera eta langile guztiei aplikatu dakizkieke, filialekin, balio-katearekin eta beste interes-talde batzuekin dituzten harremanak barne.
- Politika hauek Gestio Sistema Integratuaren parte dira, eta hori izango da kudeaketa-ereduaren oinarria.
- Definitutako politika guztiak bete eta errespetatu beharra.

3. Konpromisoak

Matz-Erreka S. Coop-ek hartutako konpromisoak gure jardueren garapena bideratzen duen oinarri kulturala eta kudeaketa eredia dira. Konpromiso horiek hainbat politika espezifiktan jasotzen dira.:

1. Enpresa-kudeaketarako Politika.
2. Talde barruko harremanen Politika (Eranskinak)
3. Ekonomia eta Finantza Politika (Eskuliburua)
4. Informazioaren Segurtasun-Politika (Eskuliburua)
5. Enpresa-jokabidearen Politika eta Kultura Korporatiboa (Eskuliburua , Protokoloa, Kode Etikoa)
6. Kalitate-Politika (Eskuliburua)
7. Pertsonen Politika (Eskuliburuak)
8. Hizkuntza Politika (Eskuliburua)
9. Ingurumen-Politika eta Klima-aldaketa arintzea eta horretara egokitzea.
10. Erosketa jasangarrien eta gatazka-mineralen Politika (Eskuliburua)
11. Giza Eskubideen Politika

4. Onarpena eta jarraipena

Matz-Erreka S. Coop-en politika guztiek tratamendu bera izango dute:

Onarpena: Politikak MATZ-ERREKA S. COOP.eko Zuzendari Batzorde Orokorak egin eta berrikusten ditu, eta Kontseilu Errektoreari aurkezten zaizkio onar ditzan. Zuzendaritza nagusia arduratuko da hura aplikatzeaz, eta, hala, zuzendaritzak arlo guztietan duen konpromisoa islatuko du, eta enpresaren estrategia globalean integratuko dela bermatuko du.

Politikei lotutako **eskuliburuak** MATZ-ERREKA S. COOP.eko Zuzendaritza Batzordeak egin, berrikusi eta onartuko ditu eta Kontseilu Errektoreari jakinaraziko zaizkio.

Berrikusketa: Politika horiek urtero berrikusiko dira, eta, hala badagokio, eguneratuko dira, betiere Matz-Erreka S. Coop-en beharrak islatu nahian, eta legedian izandako aldaketak eta interes-taldeen iruzkinak eta iradokizunak kontuan hartuta. Aldi estrategiko bakoitzean, berrikuspenak kontuan hartuko du ea baliozkoak diren helburu estrategiko berriak lortzeko.

Eskuliburuen kasuan, aplikazio-eremu bakoitzari dagokio haien indarraldia berrikustea, eta, beharrezkotzat jotzen denean, eguneratu egingo dira, ZBOren oniritzia beharrezkoa izanik.

Eskura jartzea: Bere web orrialdearen bidez, Matz-Erreka S. Coop.ek alderdi interesatuen esku jarriko ditu politika hauek, eta, aldi berean, kooperatibako langile guztiei jakinaraziko dizkie, intranetaren bidez.

Betetzeko betebeharra eta diziiplina-sistema, Matz-Erreka S. Coop.-eko bazkide eta langile guztiek Politika hau eta honi lotutako dokumentuak errespetatu eta bete behar dituzte. Pertsonaren batek xedapen horietakoren bat betetzen ez badu, kooperatibak, kasuaren inguruabarrak kontuan hartuta, egokitzen jotzen dituen diziiplina-neurriak hartuko ditu.

Ber.	Data	Eginda/ Berrikusia	Onartuta
00	2025/09/12	ZBO	KE

ENPRESA-KUDEAKETARAKO POLITIKA

1. Helburua

ENPRESA-POLITIKAK osatzen du Matz-Erreka S. Coop gidatzen duen erreferentzia-esparrua, enpresa-jardueraren kudeaketaren eremu guztietan jarduteko eta erabakiak hartzeko ereduan, hartutako konpromisoen bidez mugak eta irizpideak ezarriz.

2. Oinarrizko printzipioak

Jarduteko moduaren oinarrizko printzipioak hauek dira:

- **Enpresa-eredu kooperatiboa**, negozio-unitateen eta filialen arteko lankidetzan eta kooperazioan oinarritua, bai eta kanpoko beste erakunde batzuekin ere.
- **Organo sozialekiko lankidetzeta eta errespetua**. Konfiantza eta gardentasuna dira alderdi exekutiboaren eta gobernantzaren arteko harremanaren oinarria, kooperatibaren helburuak betetzeko eta bazkideen interesak babesteko, eta kooperatibaren funtzio guztiak kontrolatzeko eskubideari eusteko.
- **Lege-, bezero- eta arau-eskakizunak betetzea**.
- **Jarduera estrategiko eta operatibo guztietan errentagarritasuna bilatzea**, negozioaren jarraitutasuna lehenetsiz berehalako lorpenaren aurrean, berrikuntza, **eraginkortasun operatiboa eta garapen jasangarria** sustatuz.
- **Hazkuntza ez-organikoa** garapen-palanka gisa erabiltzea.
- **Langile guztien profesionaltasuna bilatzea** eta egindako lanaren jarraipena egitea.
- **Ingurune seguru eta osasungarria bermatzea** erakundeko pertsona guztien lan-jardueran, edozein dela ere haien lanpostua.
- **Komunikazio gardena eta eraginkorra** izatea hala eskatzen duten langile eta alderdi interesdunekiko.
- **Sortutako datuen segurtasuna** bermatzea, bai norberarena, bai gure bezero eta hornitzaileena.

3. Konpromisoak

Printzipio horiei lotuta, konpromiso hauek hartu dira:

- Organo sozialekiko harremanetan **gardentasuna praktikatzea**, erabakiak modu informatuan eta estrategikoan hartzen lagunduz.
- Kooperatibaren kontzeptu kooperatiboen eta nortasun kulturalaren **ezagutza sustatzea**.
- Plan estrategikoen eta urteko kudeaketa-planen definizioa, **hedapena eta jarraipena onartzea**.
- **Hazkunde ez-organikoa** erabiltzea, politika ekonomiko-finantzarioan jasotako zuhurtzia-irizpideetara eta indarrean dagoen barne-araudira egokituz.
- Inpaktuen, arriskuen eta aukeren analisisan oinarritutako **Gestio Sistema bat ezartzea**, aukera emango diguna inpaktuak, arriskuak eta aukerak zehazteko, ebaluatzeko, kudeatzeko eta konpontzeko, bai operazioetan bertan, bai balio-katean, eta ahaleginak sistemaren beraren eta sistema osatzen duten prozesuen etengabeko hobekuntzara bideratzeko, sistemaren jarduera hobetearren.
- Lege-betekizunen eta haien aplikagarritasunaren segimendua egiteko **tresnak ematea**, arriskuen analisisan oinarrituta.
- Indarrean dagoen **barne-araudia argitaratzea eta jakinaraztea**, horren berri izan eta aplikatu dadin.
- **Garapen profesionala eta pertsonala bultzatzea** prestakuntzaren bidez, langileen profesionaltasuna eta lanpostuetara egokitzea bermatzeko.

- Alderdi interesdunekin, barrukoak zein kanpokoak, **komunikazio-kanal irekiak** eta eraginkorrak izatea.
- Taldearen jardura "ekonomiko-finantzarioari" eta "ez-finantzarioari" buruzko **informazioa argitaratzea**.
- Garatutako **politikak betetzea**.

4. Onarpena eta jarraipena

Alde honetatik, MATZ-ERREKA S. Coop.-en KUDEAKETA KORPORATIBOKO POLITIKA dokumentuan deskribatutako gainerako politikei aplikatzen zaien prozedura bera aplikatuko da.

Ber.	Data	Eginda/ Berrikusia	Onartuta
00	2025/09/12	ZBO	KE

TALDE BARRUKO HARREMANEN POLITIKA

1. Helburua

Politika horren helburua da prozesu korporatiboen eta Matz-Erreka S. Coop osatzen duten negozioen eta Erreka Mex eta Erreka Plast filialen prozesuen arteko harreman-eredua definitzea.

2. Oinarrizko printzipioak

Jarduteko moduaren oinarrizko printzipioak hauek dira:

- Harreman-ereduak **kontuan hartuko du une bakoitzeko ikuspegi estrategikoa.**
- Jatorrizko herrialdea, negozioaren konplexutasuna, tamaina eta filialaren beraren heldutasuna hartu beharko dira kontuan.
- **Eredu arina**, ohiz kanpoko egoeretan (ekonomikoak, sozialak edo politikoak) alda daitekeena.
- Definitutako ereduak alderdi hauek **izan behar ditu kontuan:**
 - Jarduerak/ Operatiba
 - Onarpen-fluxua
 - Jardueren kontrola (helburuak eta KPI barne)
- **Prozesu/sail bakoitzak zehaztuko du** jarduera (azpiprozesu) bakoitzerako zer harreman-eredu ezartzen duen, bai eta hura koordinatzeko erabilitako komunikazio-bideak ere.
- Hartutako konpromisoak betetzeko, inplikaturako prozesu guztiek onartu behar dute.
- Eranskinetako puntuetan hartutako konpromisoak betetzen ez badira edo jardueraren batean desbideratze jarraituak gertatzen badira denboran, enpresa nagusiak enpresa filialaren prozesuan parte hartu ahal izango du.
- Harreman-eredu zehatz bat ezartzea, jatorriko enpresako zuzendaritzak nahiz filialak hautemandako beharren menpe egongo da.

3. Konpromisoak

Hartutako konpromisoak zehatz-mehatz jasotzen dira eranskin hauetan:

- **Eranskina 2.** Talde barruko harremanak **P70 Pertsonen kudeaketa ME-EM**
- **Eranskina 3.** Talde barruko harremanak **P80 TIC eta Informazioaren Segurtasuna ME-EM**

4. Onarpena eta jarraipena

Alde honetatik, MATZ-ERREKA S. Coop.-en KUDEAKETA KORPORATIBOKO POLITIKA dokumentuan deskribatutako gainerako politikei aplikatzen zaien prozedura bera aplikatuko da.

Ber.	Data	Eginda/ Berrikusia	Onartuta
00	2025/09/12	ZBO	KE

EKONOMIA ETA FINANTZA POLITIKA

1. Helburua

Politika honen helburua da kooperatiba jarrera lehiakor iraunkorretatik garatzea, ekonomiari dagokionez.

Politika honen aplikazio-eremuak Matz-Erreka S. Coop-en perimetro osoa hartzen du (kontsolidatua), bai enpresa nagusia, bai filialak eta partaidetuak barne, baldin eta matrizeak gehiengoa badu haien erabaki-organoetan.

2. Oinarrizko printzipioak

Jarduteko moduaren oinarrizko printzipioak hauek dira:

- **Finantza-interkooperazioa sustatzea.**
- Beharrezkoak diren **baliabideen eskuragarritasuna bermatzea** eta finantza eta ondare egitura orekatua izatea kooperatibaren bideragarritasuna ziurtatzeko.
- Epe luzerako planteamenduetarako **esparrua eskaintzea**, egoera desberdinak aldeztu aurretik kudeatzeko.
- **Malgua eta praktikoa izatea.**
- **Errentagarritasuna** kooperatiba-proiektuaren jarraitutasuna eta garapena finkatzeko eta bermatzeko **bitartekotzat hartzea.**
- Proiektu kooperatiboaren jarraipena eta garapena finantzatzeko iturri nagusia diren **baliabideak autogeneratzea.**
- **Baliabide nahikoak erakarri eta kudeatzea**, finantzazio-iturri klasikoak hazkundea bultzatzeko balio duten irudi berritzaileekin osatuz.
- **Dimentsionamendu egokia eta gure aktiboen saturazio/optimizazioa**, horien errotazioak handitzeko.
- Behar bezain **errentagarriak ez diren negozioak berriz bideratzea, berregituratuz, bultzatuz** edo bertan behera utziz.
- **Baliabide propioen eta besteren baliabideen arteko harremana optimizatzea**, ondarearen oreka hobetzeko, garapena bermatzeko.
- **Inbertsioak aztertzeke prozesuan, alternatiba onenak hautatzea** errentagarritasunari eta ondare-orekaren kontrolari dagokionez.
- **Emaitzak banatzeko politikari dagokionez**, beste proiektu batzuetan berrinbertitzeko baliabideak lortzea kontutan hartzen duen politika aplikatzea, kooperatiba-proiektuaren etorkizuneko jarraipena zainduz.
- **Arriskuen prebentziozko azterketa** eta kudeaketa politika ekonomiko eta finantzarioaren printzipio gidari gisa ezartzea, erabaki guztiak zehaztasun-, iraunkortasun- eta kontrol integraleko irizpideen arabera hartzen direla ziurtatuz.

3. Konpromisoak

Hartutako konpromisoak zehatz-mehatz jasotzen dira **Gestio Ekonomiko-finantzario Iraunkorraren Eskuliburuan.**

4. Onarpena eta jarraipena

Alde honetatik, MATZ-ERREKA S. Coop.-en KUDEAKETA KORPORATIBOKO POLITIKA dokumentuan deskribatutako gainerako politikei aplikatzen zaien prozedura bera aplikatuko da

Ber.	Data	Eginda/ Berrikusia	Onartuta
00	2025/09/12	ZBO	KE
01	2026/02/12	ZBO	KE

INFORMAZIOAREN SEGURTASUN-POLITIKA

1. Helburua

Informatikaren eta komunikazioen arteko konbergentzia enpresentzako produktibitate-paradigma berri bat errazten ari den ingurune teknologikoan, oso garrantzitsua da informazio-sistema korporatiboaren erabiltzaileek jardunbide egokien gida bat izatea, kudeatutako Informazio guztiaren konfidentzialtasun-, osotasun-, erabilgarritasun- eta legezkotasun-helburuak lortzeko.

2. Oinarrizko printzipioak

Jarduteko moduaren oinarrizko printzipioak hauek dira:

- **Konfidentzialtasuna:** Matz-Erreka S. Coop-ek eta filialek tratatzen duten Informazioaren berri baimendutako pertsonen baimen baimen ez dute izango, identifikatu ondoren, eta horretarako ezarritako unean eta bitartekoen bidez.
- **Zintzotasuna:** Matz-Erreka S. Coop-ek eta filialek tratatutako Informazioa osoa, zehatza eta baliozkoa izango da.
- **Eskuragarritasuna:** Matz-Erreka S. Coop-en eta haren filialen Informazio tratatua une oro egongo da eskuragarri eta erabiltzaile baimendu eta identifikatuak erabiliko dute, eta bermatuta egongo da bertan geratuko dela edozein gorabehera gertatuz gero ere.
- **Legedia:** Matz-Erreka S. Coop-ek, eta bere filialek, aplikatu dakiekeen legeria guztia betetzen dela bermatuko dute. Eta, zehazki, datu pertsonalen tratamenduarekin lotuta indarrean dagoen araudia.

3. Konpromisoak

Printzipio horiei lotuta, konpromiso hauek hartu dira:

- ISaren kudeaketa **ezartzea, inpaktuen, arriskuen eta aukeren kudeaketan oinarritutako** kudeaketa-elementu estrategiko gisa.
- **Aplikatu beharreko lege- eta arau-betekizunak betetzea**, besteak beste, ISO 27001 arauari eta ISO 27002 kontrolei lotutakoak, ahaleginak ISaren kalitatea kudeatzeko sistemaren eta sistema hori osatzen duten prozesuen diseinua etengabe hobetzera bideratuz.
- MATZ-ERREKA S. COOPeko Zuzendaritza Nagusiaren bidez oinarrizko printzipio gisa deskribatutako segurtasun-jarraibideak betetzeko beharrezkoak diren **antolamendu-, teknika- eta kontrol-neurriak** ezartzen laguntzeko eta sustatzeko **ardura hartzea**. Ondorioz, informazio-sistemaren erabiltzaile guztiek bete behar dituzten barne-arauen multzo bat definitu da.
- Langile guztiek **ERABILTZAILEAREN IS ESKULIBURUA** bete behar dute. (PI-80-02).

4. Onarpena eta jarraipena

Alde honetatik, MATZ-ERREKA S. Coop.-en KUDEAKETA KORPORATIBOKO POLITIKA dokumentuan deskribatutako gainerako politikei aplikatzen zaien prozedura bera aplikatuko da.

Ber.	Data	Eginda/ Berrikusia	Onartuta
00	2025/09/12	ZBO	KE

ENPRESA-JOKABIDEAREN POLITIKA ETA KULTURA KORPORATIBOA

1. Helburua

Politika honen helburua da MATZ-ERREKA S. Coop.-en barruan gerta daitezkeen delituzko jokabideak prebenitzeko, detektatzeko eta horiei erantzuteko jarduera-esparru bat ezartzea. **Konplimenduaren eta enpresa-etikaren kultura** sustatu nahi dugu, gure erakundearen eta hura osatzen duten pertsona guztien **osotasuna** babestuz.

Horretarako, beharrezkoak diren printzipio eta elementuak ezartzen dira, kultura sendo eta komun bat eraikitzeak aukera ematen digutenak, enpresa une bakoitzean **zintzotasun eta profesionaltasun** mailarik gorenetan kokatu nahi duena bere jardueran, non guztion ongia ez den ideal bat soilik, irizpide operatibo bat baizik.

Politika hau Urteko Kontu Konsolidatuen arabera Kooperatiba osatzen duten sozietate guztietan aplikatu behar da, eta, ondorioz, administratzaile eta langile guztiei, bazkide nahiz besteren konturako langile izan, jarduera non egiten duten kontuan hartu gabe.

2. Oinarrizko printzipioak

Matz-Erreka S. Coop.-en kultura osatzen duten elementuak honako hauek dira:

- Bere **Kode Etikoan** jasotako **misioa, bisioa eta balioak**.
- **Indarrean dagoen legedia errespetatzea**, **Arriskuak Prebenitzeko Eskuliburuaren** bidez. Eskuliburu hori edozein langilek delituak egin ez ditzan erabiltzen da, eta, hala, **Zigor Kodean** jasotako eskakizunak betez kontrola egitea.
- EESSak, arauak eta gure kudeaketa-organoak **errespetatzea**. Horretarako, boto-eskubidea erabiliko dugu, kooperatiba-ereduaren printzipioa eta gizarte zuzen eta bidezkoa eratzeko oinarrietako bat.
- **Kide izatearen sentimendua**, proiektuarekiko konfiantzazko identifikazio indibidualaren bidez eta enpresa-proiektuaren jabe sentituz.
- **Informazio-Komunikazioa**, ezagutza- eta gardentasun-maila handiarekin, bazkide langileen arteko hurbiltasuna bultzatuko duten espazioak eta topaguneak sortuz.
- **Garapen pertsonala eta profesionala**, langileen ezagutzak, gaitasunak eta trebetasunak hobetuz gizarte eta lanbide arloetan.
- **Ingurunearekiko konpromiso soziala, eraldaketa sozialaren** eragile aktiboa izanik, kooperatiba izaerari dagokion printzipioa, jarduten dugun lekuan.
- **Bezeroarenganako orientazioa**; bezeroaren gogobetetzea da gure oinarrizko orientazioa. Bezeroak ezagutuz, haiekin lan eginez, haien eskaerei erantzuteko eta beharrei aurrea hartzeko.
- **Bizi-kalitatea**, hau da, lan-baldintza orokorretan maila ona lortzea, jarduera-sektorearen barruan.
- **Erantzukidetasuna**. Kultura horretan, pertsonen inplikazio- eta lorpen- estandar altuak dituzte, beren konpromisoak betetzen dituzte, eta anbizio handiko helburuak ezartzen dira langile eta jabe gisa, proiektu partekatuko esparru batean.

3. Konpromisoak

Printzipio horiei lotuta, konpromiso hauek hartu dira:

- Kooperatiban (eta haren filialetan) **Enpresa Kultura Etiko bat sustatzea**, jarduten dugun lekuetan aplikatu beharreko lege eta araudi guztiak beteko dituen, pertsona eta organo guztiak inplikatu dituen, zigor penala saihesteaz gain, delitu penalekiko 0 tolerantzia kokatuz.
- Kooperatibaren **kode etikoa betetzea**.
- Delituak **prebenitzea**, arrisku penalak **Prebenitzeko Eskuliburua** aplikatuta.
- **Informatzailea babestea**, edozein pertsona errepresalien beldurrik gabe gerta daitezkeen bortxaketei buruzko informazioa emateko eroso senti dadin sustatuz, arrisku penalak Prebenitzeko Eskuliburuan jasotzen den bezala.
- **Eredu kooperatiboa bultzatzea**, printzipio eta balio kooperatiboak hedatuz eta trebatuz, enpresa arduratsu, demokratiko, lehiakor eta jasangarria eraikitze.
- **Berdintasuna, aniztasuna eta inklusioa** kudeaketa-printzipio estrategikotzat hartzea erakundean, kudeaketaren egunerokotasunean gizonen eta emakumeen arteko aukera-berdintasunaren dimentsioa integratuz, eta era guztietako aniztasuna **babestea** (generoa, adina, etnia, erlijioa, sexu-orientazioa, desgaitasuna, jatorri sozioekonomikoa, jatorria, etab..) eta errespetuzko ingurune bat **sortzea**, pertsonak baloratuta senti daitezen, beren gaitasun handiena eta partaidetza-sentimendua gara ditzaten.
- Urteko trebakuntza-plan baten bidez, **trebakuntza eta garapena artikulatzea**, kultura korporatiboko gai garrantzitsuenak hedatzeko eta sendotzeko.
- Enpresaren **kudeaketan eta emaitzetan** pertsonen parte-hartzea **sustatzea**, konpromiso, motibazio eta nortasun handiagoa sortuko duten antolaketa-eredu parte-hartzaile eta malguen bidez.
- **Pertsonen eta erakundeen arteko lankidetzaren sustatzea**, elkartasun-mekanismoak eta erresilientzia handiagoa sortzeko.
- **Berrikuntzaren kultura sustatzea**, produktu, zerbitzu eta negozio-eredu jasangarriagoak garatzeko. I+G inbertsioa, prozesuen eraginkortasuna hobetzeko, ingurumen-inpaktua murrizteko eta bezeroen eta gizartearen behar aldakorrei erantzuteko.
- **Ekonomia- eta finantza-baliabideen kudeaketa eraginkorra egitea**, diru-iturriak dibertsifikatuz eta arriskuak murriztuz, hazkunde errentagarria eta iraunkorra sortuz denboran, langileei behar bezala ordaintzeko eta finantza-kaudimenari eusteko.
- Proiektu propioak **garatzea**, gizarte-ekintzako beste zentro batzuekin lankidetzan, **presentzia** dugun ingurunean **inpaktu sozial positiboa sortzeko**, kooperatibaren enpresa-jardueratik haratago.
- Lortutako emaitzak eta aurrerapenak **modu garden eta erregularrean hedatzea**.

4. Onarpena eta jarraipena

Alde honetatik, MATZ-ERREKA S. Coop.-en KUDEAKETA KORPORATIBOKO POLITIKA dokumentuan deskribatutako gainerako politikei aplikatzen zaien prozedura bera aplikatuko da.

Ber.	Data	Eginda/ Berrikusia	Onartuta
00	2025/09/12	ZBO	KE

KALITATE-POLITIKA

1. Helburua

Matz-Erreka mundu mailako enpresa bat da, nazioartean lehiakorra hainbat sektoretan eta ingurune industrialaren etengabeko bilakaera ezagutzen duena. Produktuetan, zerbitzuetan eta prozesuetan estandar altuak bermatzeko, kalitate-politika bat ezartzen da. Politika hori, aldi berean, kooperatibaren kudeaketa-sisteman integratzen da, eta bezeroen itxaropenak betetzera eta kooperatibaren garapenari laguntzera bideratuta dago. Kalitatea ez dugu baldintza gisa bakarrik hartzen, baizik eta eraginkortasuna, segurtasuna eta bezeroen gogobetetzea bermatzeko funtsezko konpromiso gisa.

2. Oinarrizko printzipioak

Kalitate-politika horren oinarrizko printzipioak hauek dira:

- Kooperatibaren kudeaketa-sistema osatzen duten eta Kalitatea Kudeatzeko Sistemaren Eskuliburu Integratuan jasota dauden **prozesu guztiak sartzen dira esparru honetan**.
- ISO 9001, ISO 13485, ISO 14001, IATF 16949, ISO 27001, ISO 45001, ISO 50001 estandarrei lotutako **lege- eta arau-betekizunak betetzea**.
- **Bezeroarenganako orientazioa**, haren beharrak eta itxaropenak ulertzeko eta haren gogobetetzea areagotzeko.
- **Kalitatea eragiketaren ardatz nagusitzat hartzea** eta industrian dugun lehiakortasunaren oinarria. Gure ustez, goi-mailako estandarrei eustekak, gure bezeroen gogobetetzea bermatzeaz gain, gure izen ona eta bikaintasunarekiko konpromisoa indartzen ditu.
- **Prozesuak, produktuak eta zerbitzuak etengabe optimizatzea**, irtenbideetan, tresnetan eta prozesuetan berrikuntzak eginez.

3. Konpromisoak

Printzipio horiei lotuta, konpromiso hauek hartu dira:

- Indarrean dagoen legedia eta barne-araudia betetzeaz gain, ikuspegi proaktibotik eta etengabeko hobekuntzatik ezarrita dagoen **Gestio sistema izatea**.
- Kalitatearen kudeaketa eta politika kooperatiboaren funtzionamendua elementu **estrategiko** gisa ezartzea.
- **Arriskuak identifikatzea**, haiek arintzeko egin beharrekoak ezarriz, eta, aldi berean, **aukerak** identifikatzea eta haiei ekiteko bitartekoak definitzea.
- Lan-dinamika bat **sustatzea, o akatsetara** eta hornitutako produktu, zerbitzu eta prozesuen **"ERABATEKO" kalitatera** bideratua.
- Hornitzailearen Kalitate Eskuliburua (SQM) sinatuta, kooperatibaren kalitate-politika **hornikuntza-katera hedatzea**.
- PDCA zikloan oinarritutako metodologia **aplikatzea**, helburuak definituz eta KPlen bidez jarduera neurtuz.
- **Kalitatea Kudeatzeko Sistema Integratuaren Eskuliburua eguneratua izatea**. Kalitatearen kudeaketarekin eta aplikatu beharreko sistema eragilearekin lotutako ardurak eta rolak jasotzen dira eskuliburu horretan.

4. Onarpena eta jarraipena

Alde honetatik, MATZ-ERREKA S. Coop.-en KUDEAKETA KORPORATIBOKO POLITIKA dokumentuan deskribatutako gainerako politikei aplikatzen zaien prozedura bera aplikatuko da.

Ber.	Data	Eginda/ Berrikusia	Onartuta
00	2025/09/12	ZBO	KE

PERTSONEN POLITIKA

1. Helburua

Politika honek Matz-Erreka S. Coop gidatzen duen erreferentzia-esparrua osatzen du, portaera eta harreman arduratsu eta jasangarriak dituzten pertsonen garapenean, lan-giro inklusibo eta errespetuzko batean, non pertsona guztiak beren trebetasun eta ekarpenengatik balioesten diren, beren generoa, arraza, erlijioa, adina, sexu-orientazioa, desgaitasuna edo legeak babestutako beste edozein ezaugarri dela ere.

Politika hau Matz-Erreka S. Coop-eko jarduera, negozio eta langile guztiei aplika dakieke, haien balio-kateko harremanak eta beste interes-talde batzuk barne.

2. Oinarrizko printzipioak

Matz-Erreka S. Coop.-en kultura osatzen duten elementuak honako hauek dira:

- **Diskriminaziorik eza**, pertsona guztiak duintasunez eta errespetuz tratatuz.
- **Aukera-berdintasuna** enplegu-arlo guztietan, kontratazioa, sustapena, prestakuntza, konpentsazioa eta onurak barne.
- **Aniztasuna**: lan egiten dugun komunitateen aniztasuna islatzen duen lan-giroa sustatuz.
- Laneko ingurune seguru eta osasungarria, **Laneko Segurtasunarekin eta Osasunarekin** lotutako arriskuak ezabatuz eta murriztuz.
- **ISO 45001 arauan oinarritutako Kudeaketa Sistema bat izatea**. Laneko Segurtasuna eta Osasuna babesteko eta hobetzeko funtsezko elementu gisa. Sistema horrek, herrialde bakoitzean indarrean dagoen legedia eta beste baldintza batzuk betetzeaz gain, lan-baldintzak etengabe hobetzea eta langileen osasuna sustatzea, lan-indarkeria prebenitzea eta antolaketa-ingurune egokia izatea ahalbidetuko du.
- Prebentzio-kultura bat **garatzea**, taldeko pertsona guztiek Laneko Segurtasun eta Osasunarekiko konpromisoa har dezaten, modu autonomo eta proaktiboan.
- LSOren eremuan, langileei **informazioa ematea, parte hartzea sustatu eta kontsulta egitea**.
- LSOren kudeaketa erakundearen maila guztietan.
- **Garapen pertsonala eta profesionala**, langileen ezagutzak, gaitasunak eta trebetasunak hobetuz gizarte eta lanbide arloetan.
- **Erantzukidetasuna**. Kultura bat non, pertsonak inplikazio- eta lorpen-estandar altuak dituzte, beren konpromisoak betetzen dituzte, eta anbizio handiko helburuak ezartzen dira langile eta jabe gisa, proiektu partekatuko esparru batean.
- **Gure hornitzaileek balio-katean** duten funtsezko zereginaren **onarpena**.

3. Konpromisoak

Printzipio horiei lotuta, konpromiso hauek hartu dira:

- Pertsonen **berdintasuna sustatzea** ordainsariei dagokienez, egindako lan beragatik ekitatea eta berdintasuna errespetatzen eta bermatzen duen sistema baten bidez. (EOS).
- Pertsonen **aniztasuna (jatorria, arraza, kolorea, sexua, erlijioa eta iritzi politikoa) onartzea**, edozein arrazoiengatik diskriminatzea debekatuz eta hori betetzen dela bermatzen duten tresnak ezarri, Berdintasun Plan bat garatuz.
- **Inklusioa sustatzea**, edozein diskriminazio mota prebenitzeko eta arintzeko neurriak ezarri.
- Dauden lan-arriskuen (segurtasuna, higienikoak, ergonomikoak eta psikosozialak) **aldizkako ebaluazioak egitea**, larrialdietan egin beharrekoak ezarri eta istripuak eta gorabeherak eraginkortasunez kudeatuz.
- Plan Estrategikoetan eta Kudeaketa Planetan laneko arriskuak desagerrarazteko eta arriskuak murrizteko **baliabideak sartzeari**, makina seguruak, lanpostu ergonomikoak, lan-karga egokiaren banaketa, taldeko eta banakako babes-ekipoak, substantzia kimikoak modu seguruan manipulatzeke baliabideak eta suteen aurkako babes-sistemak jarri.
- LSOn kudeaketatik eratorritako **erantzukizunak definitzea**, eta baliabide eta gaitasun egokiak ematea, arrakastaz gauzatuko direla bermatzeko.
- **Enplegu egonkorra eta kalitatezkoa sortzea**, gure inguruko gizarte- eta enpresa-garapenari eta aberastasunaren bidezko banaketari lagunduko diona.
- Pertsonen garapena **sustatzea**, **etengabeko prestakuntzaren**, **barne-sustapenaren** eta **ondo egindako lanaren aitorpenaren** bidez, betiere, gogobetetasun pertsonala eta autoestimua sustatuz.
- **Foroak sortzea**, langileek LSOr buruz zehaztutako **erabakietan eta helburuetan parte hartu** ahal izan dezaten, eta horri guztiari buruzko **informazioa jaso** dezaten, **lortutako lorpenak** barne.
- **Lan-giro garbia eta segurua sustatzea**, diskriminaziorik, jazarpenik eta errepresaliarik gabea.
- Langileen **kontziliazioa eta erantzunkidetasuna** eta lan-baldintzak bermatzea bultzatuko duten **araudiak eta eskuliburuak garatzea**.
- **Hornitzaileekiko errespetuan, gardentasunean eta elkarrekiko lankidetzan** oinarritutako harremanak **ezartzea** eta indarrean dagoen lan- eta ingurumen-legeria eta giza eskubideei buruzko legeria betetzeko eskatzea.

4. Onarpena eta jarraipena

Alde honetatik, MATZ-ERREKA S. Coop.-en KUDEAKETA KORPORATIBOKO POLITIKA dokumentuan deskribatutako gainerako politikei aplikatzen zaien prozedura bera aplikatuko da.

Ber.	Data	Eginda/ Berrikusia	Onartuta
00	2025/09/12	ZBO	KE

HIZKUNTZA POLITIKA

1. Helburua

Politika honek gure jokabidea zehazten du enpresa nagusiaren eta haren filialen arteko lan-harremanetan erabili beharreko hizkuntzei dagokienez, hau da, bai enpresa barruan bai kanpoan alderdi interesdunekin ezartzen diren harremanetan.

Hizkuntza-politika hau Matz-Erreka S.Coop-ko jarduera, negozio eta langile guztiei aplikatuko zaie, balio-katearekin eta beste interes-talde batzuekin dituzten harremanak barne.

2. Oinarrizko printzipioak

Jarduteko moduaren oinarri izango diren oinarrizko printzipioak honako hauek dira:

- Matz-Erreka S. Coop-ek, bere jarduera garatzen duen eremu soziokulturalaz jabetuta, **euskararen erabilera proaktiboa sustatuko du** enpresa nagusiaren barruko barne-harremanetan.
- **Politika bermatuko dutenak** kooperatibako organo sozialetako eta zuzendaritza-organoetako kideak izango dira.
- Bere **jarduera** gure **erkidegotik kanpo** egiten duten langileen **esparru soziokulturala errespetatuko da**.
- Enpresa nagusiaren eta filialen arteko harremanetan, kokapen geografiko **gaztelaniadunetan** daudenetan, **gaztelania izango da komunikazio-hizkuntza; gainerakoetan**, komunikazio-hizkuntza **ingeleza** izango da batez ere, eta **proaktiboak izango** gara hizkuntza horren ezagutza sustatzeko.

3. Konpromisoak

Printzipio horiei lotuta, honako konpromiso hauek hartu dira:

- Matz-Erreka S.Coop-ak euskararen **hizkuntza-plan estrategiko bat eta urteko plan bat definituko ditu**.
- Ezarritako helburuak lortzen lagunduko diguten **gidalerroak ezarriko ditu**.
- Matz-Erreka S.Coop-eko hizkuntza kudeatzeko **eskuliburua bat sortuko da**.

4. Onarpena eta jarraipena

Alde honetatik, MATZ-ERREKA S. Coop.-en KUDEAKETA KORPORATIBOKO POLITIKA dokumentuan deskribatutako gainerako politikei aplikatzen zaien prozedura bera aplikatuko da.

Ber.	Data	Eginda/ Berrikusia	Onartuta
00	2025/07/22	ZBO	KE

INGURUMEN-POLITIKA ETA KLIMA-ALDAKETA ARINTZEA ETA HORRETARA EGOKITZEA

1. Helburua

Ingurumen-politika erreferentzia-esparru bat da, eta Matz-Erreka S. Coop gidatzen du ingurumen-jardunbide arduratsu eta jasangarriak hartzeko. **Lege- eta arau-betekizunak** dira ingurumenaren eta klima-aldaketa-aren arloko gure ekintzen motorra, neurri zehatzak hartzea bultzatzen duen nahitaezko esparrua definitzen baitute.

Esparru horretan sartzen dugu **Parisko Akordioarekiko konpromisoa**. Aipatutako baldintzekin eta gure bezeroen baldintzekin batera, klima-neutraltasuna lortzeko helburuak ezartzera garamatza konpromiso horrek, trantsizio energetikoan gidatuko gaituen deskarbonizazioaren ibilbide-orri baten bidez, berotegi-efektuko gasen emisioak **murritzeko** arintze-neurriak ezarriz.

Aldi berean, klima-aldaketa **egokitzea** funtsezkoa da gure komunitateek, ekosistemek eta ekonomiek berotze globalaren ondorio kaltegarrien aurrean duten erresilientzia bermatzeko; beraz, politika horri esker, egokitzapen-estrategiak sar ditzakegu arriskuak arintzeko, baliabide naturalak babesteko eta muturreko klima-gertaerei erantzuteko gaitasuna indartzeko.

2. Oinarrizko printzipioak

Matz-Erreka S. Coop.-en kultura osatzen duten elementuak honako hauek dira:

- **Legea betetzea**, lege eta araudien arabera jardunez.
- Ingurumena **babestea** eta kutsadura prebenitzea, ingurumen-inpaktu kaltegarriak murrizteko.
- **Baliabideak arduraz erabiltzea**, uraren, energiaren eta lehengaien kontsumoa optimizatuz.
- Industria-eragiketek sortutako ingurumen-inpaktua **minimizatzea**.
- **Hondakinen kudeaketa eraginkorra**, materialen murrizketa, berrerabilpena eta birziklapena sustatuz.
- **Berrikuntza eta etengabeko hobekuntza**, teknologia garbiak eta prozesu jasangarriak erabiliz.
- Enpresaren kulturen **erresilientzia** eta hazkunde jasangarria bermatzen duten ingurumen-erronken aurrean **egokitzea** lortzeko ekintzak **txertatzea**.
- Ingurumen-helburuen **parte-hartzea eta gardentasuna**.

3. Konpromisoak

Printzipio horiei lotuta, konpromiso hauek hartu dira:

- Plan Estrategikoetan eta Kudeaketa Planetan honako arlo hauek garatzeko baliabideak sartzea:
 - **Baliabide naturalen kontsumo jasangarria**, ur-kontsumoa eta lehengaien erabilera barne.
 - **Berotegi-efektuko gasen emisioak** kalkulatzeko, hiru irismenetatik datozen emisioak kontrolatuz eta **Deskarbonizazio**-plan bat monitorizatuz.
 - **Energiaren** eta erregaien **erabilera eraginkorra** egitea, **energia berriztagarrien** erabilera sustatuz.
 - **Zirkularitatea** sustatzea, balio-kate osoan materialen eta hondakinen **Murritzeta, Berrerabilpena eta Errebalorizazioa/Birziklatzea** bultzatuz.
 - **Kutsadura akustikoa** saihestea, zarata industrialaren maila kontrolatuz.
 - **Produktu kimikoen kudeaketa arduratsua** egitea, haien produktuen fabrikazio-prozesuetan substantzia mugatuak erabilera identifikatuz, minimizatuz eta, ahal bada, ezabatuz, uneoro araudia betetzen dela bermatuz.
 - Aplikatu beharreko lege- eta arau-eskakizunak **betetzea**.
- Energiaren jardueran eragina duten eta energetikoki eraginkorrak diren produktuak eta zerbitzuak **erosten laguntzea** (ISO 50001).
- Produktu eta zerbitzuen **diseinuan eta garapenean** ekonomia zirkularreko kontzeptuak **ezartzea**, horiek konpontzea, berrerabiltzea eta birziklatzea errazten dutenak eta energia-kontsumoak murrizten dituztenak.
- Inpaktuen, arriskuen eta aukeren analisis oinarritutako Gestio-sistema bat **izatea**, aukera emango diguna inpaktuak, arriskuak eta aukerak zehazteko, ebaluatzeko, kudeatzeko eta konpontzeko, bai operazioetan bertan, bai balio-katean, eta ahaleginak sistemaren beraren eta sistema osatzen duten prozesuen etengabeko hobekuntzara bideratzeko, haren jardura hobetearren.
- Sentsibilizazio-, prestakuntza- eta informazio-programak **ezartzea**, bai eta parte hartzeko bideak ere, Ingurumen Politika, Helburuak eta Gestio Sistema betetzeko aurreikusitako jarduerak pertsona guztiek beren gain har ditzaten.
- Gure hornikuntza-katea **gidatzea**, gure jarduerak eta gure produktuek sortutako ingurumen-inpaktua murrizteko, eta haien ingurumen-konpromisoetan eta -estandarretan aurrera egitea sustatzeko.

4. Onarpena eta jarraipena

Alde honetatik, MATZ-ERREKA S. Coop.-en KUDEAKETA KORPORATIBOKO POLITIKA dokumentuan deskribatutako gainerako politikei aplikatzen zaien prozedura bera aplikatuko da.

Ber.	Data	Eginda/ Berrikusia	Onartuta
00	2025/09/12	ZBO	KE

EROSKETA JASANGARRIEN ETA GATAZKA-MINERALEN POLITIKA

1. Helburua

Erosketa Jasangarren Politikaren helburua da Matz-Erreka S. Coop-en erosketak arautzen dituzten printzipioak eta irizpideak ezartzea, modu arduratsu eta jasangarrian egiten direla ziurtatuz.

Kooperatibako negozio guztietan aplikatu daiteke, hornidura-kateek kudeaketa-eredu desberdinak eska ditzaketela ulertuz eta onartuz.

Politika hau interpretatu egin behar da, Matz-Erreka S. Coop.-en eta bere hornitzaileen arteko merkataritza-harremanari eragiten dioten eta legez edo kontratu bidez ezar daitezkeen eskakizun gehigarriei kalterik egin gabe.

2. Oinarrizko printzipioak

Jarduteko moduaren oinarrizko printzipioak hauek dira:

- Erosketen kudeaketarekin lotutako **lege-eskakizunak** eta bete ditugun araudietan ezarritako baldintzak **betetzea**.
- **Hornitzaileak hautatzeko irizpideak** produktuaren prezioan, kalitatean, hornidura-gaitasunean eta berrikuntza teknologikorako gaitasunean oinarrituta ezarriko dira, eta ingurumen-, gizarte- eta gobernu-alderdiak ere sartuko dira.
- **Arriskuak ezarritako irizpideen arabera gainbegiratuko dira**, eragin negatiboak saihesteko eta aukerak aprobetxatzeko.
- **Hornitzaileek** eragiketa guztietan **iraunkortasun-baldintzak betetzea** sustatuko da.
- **Hornitzaileen jarduera** neurtuko da, bi aldeen artean etengabeko hobekuntza-prozesua ezartzeko.
- **Gatazka-eremuetatik eta arrisku handiko eremuetatik materialak eskuratzeari dagokionez**, horien erauzketa, merkaturatzea, maneioa eta esportazioa barne, eta erosketa zuzenean egiten ez bada ere, eskakizun-estandar altuenak mantenduko dira, eta politika hori erreferentzia izango da hornitzaileek arriskuak identifikatzeko, erauzketa-lekutik azken erabiltzailearengana iritsi arte. (GATAZKA-MINERALAK).

3. Konpromisoak

Printzipio horiei lotuta, konpromiso hauek hartu dira:

- Erosketa jasangarriari dagokionez, kooperatibaren oinarrizko printzipioak betetzen dituzten **hornitzaileen bilaketa aktiboa**.
- Errentagarritasunari eta kalitateari buruzko barne-helburuak betetzea bermatuko duten **faktore ekonomikoak eta teknologikoak aintzat hartzea**.
- Gure ekoizpen-lerroari zuzenean eragiten dioten **produktuaren eta zerbitzuaren kalitate-faktoreak kontuan hartzea**.
- **Ingurumen-faktoreak kontuan hartzea**, ingurumena errespetatzen duten jarduerak egiten dituzten **hornitzaileak hautatuz**, hala nola baliabideak modu eraginkorrean erabiltzea, hondakinak minimizatzea eta berotegi-efektuko gasen emisioak murriztea; hau da, bizi-zikloan ingurumen-inpaktu txikia duten produktuak edo zerbitzuak hautatzea.

- **Gizarte-faktoreak aintzat hartzea, langileak modu zuzen eta bidezkoan tratatzen dituzten, lan-baldintza seguruak eta osasungarriak eskaintzen dituzten, giza eskubideak errespetatzen dituzten eta lan egiten duten komunitateei positiboki laguntzen dieten hornitzaileak aukeratuz.**
- **Gobernantza korporatiboko jardunbide** egokiak (gardentasuna, kontuak ematea, arriskuen kudeaketa eraginkorra) jarraitzen dituzten eta gure hornitzaileen jokabide-kodearekin bat egiten duten hornitzaileak aukeratutako gobernantza-faktoreak kontuan hartzea. (Hornitzaileen eskuliburua)
- **Inpaktuen, arriskuen eta aukeren kudeaketa:** inpaktuak, arriskuak eta aukerak zehaztea, ebaluatzea, kudeatzea eta konpontzea, bai eragiketa propioetan, bai balio-katean, erreferentziazko erakundeen gomendioak kontuan hartuta.
- **Hornitzaile garrantzitsuen jarduna neurtzea,** emaitzak gardentasunez jakinaraziz eta hornikuntza-kateko produktuak eta zerbitzuak hobetzeko asmoz.
- **GATAZKA-MINERALEI dagokienez, haiek erostearekin lotutako inpaktu adierazgarriak sortzeko arriskuei aurre egiteko konpromisoa hartzen da, bai eta industria osoaren ikuspegia babestekoa eta erosketa arduratsuko ekintza globaletan laguntzekoa ere, MINERAL ARDURATSUEN EKIMENaren jarraibideei jarraituz. (RMI), gure hornitzaileei eskatu behar diegu gatazka-mineralen txostena egin eta bidal dezaten, RMI ekimenaren CMRT ereduaren arabera, hornikuntza-kateko arriskuak identifikatzeko eta galdatzailea edo fintzailea Mineral Arduradunak Ziurtatzeko Prozesuak berresten duen ala ez egiaztatzeko. (RMAP).**

4. Onarpena eta jarraipena

Alde honetatik, MATZ-ERREKA S. Coop.-en KUDEAKETA KORPORATIBOKO POLITIKA dokumentuan deskribatutako gainerako politikei aplikatzen zaien prozedura bera aplikatuko da.

Ber.	Data	Eginda/ Berrikusia	Onartuta
00	2025/09/12	ZBO	KE

GIZA ESKUBIDEEN POLITIKA

1. Helburua

Giza Eskubideen politika erreferentzia-esparru bat da, eta Matz-Erreka S. Coop gidatzen du nazioarteko erreferentzia-esparruetan aitortutako giza eskubideen errespetuan, bere jarduera guztietan eta bere jarduera garatzen duen merkatu guztietan.

Jarduera, negozio eta langile guztiei aplikatzen zaie, baita balio-katearekin eta beste interes-talde batzuekin dituzten harremanei ere.

2. Oinarrizko printzipioak

Jarduteko moduaren oinarrizko printzipioak hauek dira:

- Genero, sexu-joera, jatorri etniko, erlijio, adin, ezgaitasun, ideologia, nazionalitate, egoera zibil edo pertsonaren beste edozein bereizketagatik egindako **edozein bereizkeria baztertzea**.
- **Edozein jazarpen mota**, lan behartua eta edozein lan esplotazio mota **baztertzea**, bereziki haurrena, enplegu duina sustatuz.
- **Elkartzeko askatasuna**, negoziazio kolektiborako eskubidea eta jarduera sindikalerako eskubidea errespetatzea.
- Laneko **osasuna eta segurtasuna eta ingurumen osasungarria bermatzea**, lege-baldintzak betez, dagozkion arauak eta prozedurak betez, eta segurtasun-kultura sustatuz.
- Erakundean detektatutako edo ezagututako edozein abusuren aurrean 0 Tolerantziako jarrera izatea.

3. Konpromisoak

Printzipio horiei lotuta, konpromiso hauek hartu dira:

- Bidezko lan-baldintzak bermatzen dituzten **araudiak garatzea**, langile guztien eskubideak errespetatuz.
- Ezarri ditugun araudiak eta politikak betetzen diren jakiteko jarraipena egitea.
- Giza Eskubideekiko errespetua aitortzea eta indartzea jarduera egiten den lekuetan.
- Genero, adin edo naziotasun joerarik gabeko kontratazioa sustatzea, lan-ingurune errespetuzkoa eta bidezkoa bermatuz.
- **Salaketa- eta jarraipen-kanalak ezartzea**, enplegatuek eta alderdi interesdunek giza eskubideekin lotutako irregularitasunen berri eman dezaten, modu seguruan eta errepresaliarik gabe.
- **Hornikuntza-katearekin lan egitea**, hornitzaileei giza eskubideen estandarrak betetzeko eskatuz, haurren lana eta lan-esplotazioa saihestuz eta baldintza duinak ziurtatuz.

4. Onarpena eta jarraipena

Alde honetatik, MATZ-ERREKA S. Coop.-en KUDEAKETA KORPORATIBOKO POLITIKA dokumentuan deskribatutako gainerako politikei aplikatzen zaien prozedura bera aplikatuko da.

Ber.	Data	Eginda/ Berrikusia	Onartuta
00	2025/09/12	ZBO	KE



ERREKA GROUP

B. Ibarreta SN, 20577,
Antzuola – Gipuzkoa, Spain.
T. +34 943 78 60 09
info@erreka.com
www.erreka.com

